

ISSN: 2530-6561  
2023ko azaroa  
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko  
Lankidetzeta eta  
Garapenari Buruzko  
Ikasketa Institutua

Universidad del  
País Vasco /  
Euskal Herriko  
Unibertsitatea  
UPV/EHU

## Munduko ekonomiaren erronka demografikoak

Ángeles Sánchez Díez



# Munduko ekonomiaren erronka demografikoak

---

Ángeles Sánchez Díez  
Angeles.sanchez@uam.es  
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

## Aurkibidea

<b>1.</b> Munduko ekonomiaren erronka demografikoak .....	4
<b>2.</b> Hurbilketa teorikoak eraldaketa demografikoen azterketan .....	5
2.1. Kotsiderazio teoriko batzuk .....	5
2.2. Trantsizio demografikoa .....	6
<b>3.</b> Munduko egoera demografikoa .....	8
3.1. Hirietako pilaketa eta landa-eremuko jendegabetzea .....	10
3.2. Biztanleriaren zahartzea .....	15
3.3. Migrazio-mugimenduak .....	18
<b>4.</b> Ondorioak .....	24
<b>5.</b> Erreferentzia bibliografikoak .....	25

## Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano

Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurratzaga

Xabier Gainza

Amaia García

Itziar Mujika

Unai Villena

Iker Zirion

---

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Munduko ekonomiaren erronka demografikoak](#)

Egilea: Ángeles Sánchez Díez

hegoak zabalduz - 30. zk. 2023ko azaroa

ISSN: 2530-6561



[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)

UPV/EHU. Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza, 2

20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 01 42 87

[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

---

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua  
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

**Laburpena:** Dokumentu honetan, gaur egungo testuinguruan dauden munduko joera demografikoak aztertzen dira. Lehenik eta behin, gogoeta teorikoak gainbegiratuko dira, labur. Ondoren, gaur egungo egoera eta munduko aldaketa demografikoen joerak aztertuko dira, eta hiru erronka nagusi zehaztuko dira: urbanizazioa, zahartzea eta migrazioa, arreta berezia jarrita ingurumen-elementuetan. Erantzunak ematea baino gehiago, eztabaida zabaltzea da xedea, irakurleen gogoetarako jarrera eta espiritu kritikoa bultzatzeko.

**Hitz gakoak:** Zahartzea, urbanizazioa, migrazio-mugimenduak, klima-errefuxiatuak, erronka demografikoak.

**Abstract:** This paper analyses global demographic trends in the current context. First, a brief review of theoretical considerations is made. Subsequently, the current situation and trends in global demographic changes are analysed, to detail three major challenges: urbanization, aging and migration, with special attention to environmental elements. It seeks to open debates rather than give answers, to feed the reflective and critical spirit of the readers.

**Keywords:** Caging, urbanization, migratory movements, climate refugees, demographic challenges.

# 1. Munduko ekonomiaren erronka demografikoak

Eraldaketa demografikoekiko interesa hedatu da. Nazioarteko agendaren erdigunean daude eta egongo dira, besteak beste, kezka hauek: biztanleriaren hazkunde bizkorra eta ingurumen-presioak; biztanleak hiri handi eta ez-jasangarrietan pilatzea eta, hustutako landa-eremuarekin bizikidetzan; pentsio-sistemen erronkak gizarte gero eta zahartuagoetan; eta borondatezko zein nahigabeko migrazio-mugimenduen konplexutasuna. Erronka horiek gero eta konplexuagoak dira, haien artean harreman estua dagoelako.

Aditu askok aipatu dute demografiaren garrantzia historian zehar. Bertrand Russellek zioenez, «munduak dituen arazo guztien artean, biztanleriaren arazoa da handiena eta oinarrizkoena; izan ere, hura konpondu arte, hobetzeko beste edozein neurri alferrikakoa izango da». Auguste Comtek, berriz, «demografia patua da» esan zuen. Zenbait egileren ustez, desoreka demografikoek eragin dituzte historiako eraldaketa handiak. Adibidez, Jack Goldstone soziologoak adierazi zuenez, «antzinatik, biztanleriaren aldaketak nazio eta inperioen sorrera eta erorketa bultzatzen du<sup>1</sup>».

Era berean, eraldaketa demografikoek kezka sortzen dute nazioarteko foroetan. Adibidez, World Economic Forum erakundeak argitaratutako *Global Risk Report* txostenean, munduko ekonomiarako arriskutzat hartu izan dira hiri-plangintzaren porrota eta nahigabeko migrazio-mugimendu handiak, hainbat urtez. Argitaratutako azken txostenean (2023), nahigabeko migrazio-mugimendu handiak epe luzerako 10. arriskurik handiena direla esaten da, eta 5. posturaino igotzen da epe ertain eta luzeko ikuspegia kontuan hartzen badugu. Gainera, ingurumen- eta geopolitika-arloko beste arrisku batzuekin lotura handia dutela adierazten da (World Economic Forum, 2023). Kezka hori Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuetan (GJH) ere agertzen da; hain zuzen ere, 11. GJHan hiri eta komunitateen erronka zehatzak planteatzen ditu. Estatuaren eremuan, zenbait herrialdek ministerio berriak sortu dituzte erronka horiei aurre egiteko, esaterako, Erresuma Batuko Bakardadearen Ministerioa (2018) familiarik gabeko adinekoen arazoari aurre egiteko, eta Espainiako Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa (2020), zeina Presidenteordetzaren mailara igo baita. Gainera, erronka demografikoen eta klima-aldaketaren arteko lotura gero eta handiagoak agerian uzten du hutsune handiak daudela agenda politikoan eta nazioarteko zuzenbidean bertan.

Kapitulu honetan, gai hauek jorratuko ditugu: lehenik eta behin, biztanleriaren eta ekonomiaren arteko harremana azaltzen duten ekarpen teoriko batzuk aipatuko ditugu labur. Jarraian, munduko ezaugarri demografikoak labur deskribatuko ditugu, arreta hiru erronka nagusitan jartzeko: hirietako pilaketan, zahartzean eta migrazio-mugimenduetan, bereziki klima-aldaketak eragiten dituenetan, nazioarteko agendak azkarren jorratu beharreko gaietako bat dela uste baita. Amaitzeko, zenbait ondorio jasoko ditugu.

---

1 Aipua Bañosen lanetik (2020) hartuta daude.

## 2. Hurbilketa teorikoak eraldaketa demografikoen azterketan

### 2.1. Kontsiderazio teoriko batzuk<sup>2</sup>

Teorialariek dinamika demografikoekiko interes handia agertu dute duela zenbait mendetatik. Egile batzuek planteamendu pesimistak egin dituzte biztanleriaren eta baliabideen bilakaerari eta dinamikari buruz. Ildo horretatik joan ziren, adibidez, Thomas Robert Malthusen ikerketak; hain zuzen, «Biztanleriaren printzipioari buruzko saiakera» (1798) lanean ohartarazi zuenez, hainbat arazo sortzen ziren elikagaiak modu aritmetikoan eta biztanleria modu esponentzian haztearen ondorioz, goseteak eragiten baitzituen egoera horrek. Agertoki horren aurrean, Malthusen ustez, biztanleria elikatzeko baliabideek dinamika demografikoaren mugak ezarri behar zituzten; gainera, nekazaritzako lurraren eskaintza aldaezina eta finitua zela ulertzen zuen. Beraz, haren argudioetatik ondorioztatzen zen jaiotza-tasaren kontrola mekanismo bakanetako bat zela, agian bakarra, goseteak eta heriotzak saihesteko. Egia da beste egile eta nazioarteko jarrera askok Malthusen ideiak zabaldu dituztela, esaterako, Erromako Klubaren 1972ko *Hazkundearen mugak* txostenak, baina ebidentziek erakusten dute, itxuraz, gure planetako desnutrizio-arazo izugarrien jatorrian baliabideen banaketa bidegabea dagoela, baliabideen eskasia baino gehiago, baita munduko elikadura-sistemaren funtzionamendu okerra ere.

David Ricardok ere dinamika demografikoari buruzko beldurrak azaldu zituen; hala, agerian jarri zuen lurra mugatua zela eta nekazaritza-ekoizpenak errendimendu beherakorrak zituela emankortasun gutxiagoko gainazal laboragarriak erabili ahala, eta, edonola ere, *per capita* nekazaritza-ekoizpena jaisten ari zela. Hala ere, azaletik izan arren, itxaropena sortzen hasi zen, teknologiak lurraren emankortasuna hobetzeko zuen ahalmenaren kontzeptua agertu zenean. John Stuart Millek ideia hori zabaldu zuen; haren ustez, aldaketa teknologikoak nekazaritzako etekin marjinal beherakorren legea gainditu zezakeen. Arazo hori eztabaidagai da oraindik ere, ez soilik teknikak lurra emankorrago bihurtzeko dituen aukerei dagokienez, baita jasangarritasunaren eta etikaren esparruko mugei dagokienez ere. Organikoa, ekologikoa eta antzeko kontzeptuek gero eta garrantzi handiagoa dute, baina hori *per capita* errenta handieneko ekonomietan gertatzen da bereziki, biztanleek halako produktuen kostu handiagoa ordaintzeko baliabide ekonomikoak dituzten lekuetan.

Beste egile batzuek biztanleriaren eta baliabideen arteko dinamikari buruzko planteamendu baikorrak zituzten, esaterako, Karl Marxek; harentzat, biztanleria kapitalismoaren amaiera bultzatuko zuen «erreserbako armada» bihurtu ahal izango zen.

XX. mendearen bigarren erdian, presio demografikoei buruzko planteamendu baikorrak orokortu ziren, eta honako hauek zituzten oinarri: eskari agregatuari krisi ekonomikoak saihesteko egotzitako rola (John Maynard Keynes, *Enpleguaren, Interesaren eta Diruaren Teoria Orokorra* lanean, 1936); teknologia beheranzko errendimenduak gainditzeko aukera ematen duen aldagai endogeno gisa (Paul Romer eta Robert Lucas); biztanleria zahartzea eta horrek dinamismo ekonomikoan eta babes sozialean dituen ondorioak (Rostow); eta Malthusen iragarpenak ez bete izana

Hainbat hamarkadaz, eredu demografikoen azterketa dinamika ekonomikoetara mugatu zen zentzu hertsian, baina ingurumen-jasangarritasunarekiko interesak biztanleriaren dinamikekiko ikuspegia

---

2 Aurkeztutako laburpen teorikoa lan honetan dago oinarrituta: Durán, G. eta Martín, P. (2013): «Población y recursos» in Durán, G., García de la Cruz, J.M. eta Sánchez, A. (2013): *Estructura Económica y Relaciones Internacionales*. Editorial Garceta. Madril.

aldarazi zuen, osagai erabakigarritzat jotzen baitzuen biztanleriaren hazkundera eta horrek baliabideetan duen inpaktuak eragindako kezka, nahiz eta batzuentzat jarrera hori «alarmista» izan.

Zenbait ekarpen aitzindari aipatzearen, Paul Ralph Ehrlichena ekar dezakegu, zeinak baliabideen kontsumoan dagoen desparekotasuna planteatu baitzuen, baita lehenago aipatutako *Hazkunderaren mugak* txostena ere, jarrera neomalthusiar baten esparruan. Baliabideak ez direla amaigabeak onartuta, jarduera ekonomikoa, hazkunde ekonomikoa eta kutsadura mugatzea besterik ezin da egin.

Azken aldian ingurumenaren jasangarritasunaren inguruan izan diren kezken ondorioz, herritarren eta baliabideen arteko loturari buruzko alertak gero eta handiagoak izan dira nazioartean. 1980ko hamarkadaren amaieratik egin diren Lurraren Goi Bilerek halaxe erakutsi dute, baita mende honetan egindako Klimaren Goi Bilerek ere.

## 2.2. Trantsizio demografikoa

Trantsizio demografikoaren bidez munduko biztanleriaren hazkundera azal daiteke (1. grafikoa). Lehen fase deiturikoan, jaiotza-tasa altuak ikus daitezke, eta nekazaritzarako (ondoren, industriarako) eskulana izatearen beharra du bereizgarri, etxearen mantenu ekonomikoari laguntzeko. Aldi berean, osasun-, elikagai- eta higiene-baldintzak ez dira onak, eta horrek heriotza-tasa handia eragiten du (gaur egungo parametro orokorretarako behintzat); gainera, heriotza-tasa aldakorra izan daiteke izurriteen edo gerren ondorioz. Fase honetan, biztanleriaren hazkundera oso txikia da (gorabeheratsua). Historikoki, industria-iraultzaren aurreko mendeekin identifika dezakegu.

Trantsizio demografikoaren bigarren fasean, heriotza-tasa nabarmen hasten da jaisten. Gerora, modu pausatuan, jaiotza-tasaren beherakada etortzen da. Heriotza-tasa txikiagoa izanik, jaiotza-tasa tarte batez mantentzen denez, biztanleria erritmo azkarrean hazten da. Bizi-baldintzak hobetzean, hilkortasun- eta jaiotza-tasak behera egiten dute. Zenbait politika publikoren ondorioz murrizten da heriotza-tasa, bereziki haurrena: etxebizitzaren kondizioak hobetzea; arreta medikoan aurrera egitea, bereziki ama-haurren osasunari dagokionez; segurtasuneko, subiranotasuneko eta elikadura-eskubideari buruzko politikak agertzea, eta abar. Mundu mailan, kezka horiek Milurtekorako Garapen Helburuetan adierazi ziren jadanik eta, ondoren, Garapen Jasangarriko Helburuetan ere bai. Politika guztiak ez dira berdin onartu; esaterako, aipatzekoak dira Txinan 1979tik 2015era bitartean seme-alaba bakar bat izateko zeukaten politika polemikoa<sup>3</sup>, eta sexu-hezkuntzako politikak, zeinak eremu erlijioso jakin batzuen gaitzespena jasan baitute zenbait hamarkadaz (baita gaur egun ere). Bestalde, jaiotza-tasen jaitsiera oso lotuta dago ekoizpena antolatze moduekin eta eredu ekonomikoarekin. Lansariak hobetzen dira –industria-iraultzaren aldean– eta oro har haurren lana debekatzen da<sup>4</sup>; ondorioz, ez dago premia handirik (ezta aukerarik ere) lan-indarrerako seme-alabak izateko, inbertsioa izatetik epe luzeko zama izatera igaro baitira. Hala ere, Afrikako herrialde askotan ez da hori gertatzen. Hain zuzen ere, jaiotza-tasa oso altuak

---

3 Politika horrek, beste ondorio batzuen artean, erregistratutako haurren sexuan desoreka bat eragin zuen, mutilak izatea hobesten zelako; hala, ohikoa bihurtu zen herritarrek neskak umezurztegietan uztea eta abortu selektiboak egitea. Gaur egun arazo psikologiko handiak daude desoreka horren ondorioz, adin ugalkorrean dauden adin-tarteetan. Gainera, Txinaren zahartze-prozesuaren azelerazio handiaren arrazoi nagusietako bat da.


4 Lanaren Nazioarteko Erakundearen 138. Hitzarmenak ezartzen duenez, lanean hasteko gutxieneko adina ezin da izan derrigorrezko hezkuntza amaitzen den adina baino txikiagoa. Hitzarmena sinatu zuten herrialde gehienek 15 urtetan ezarri dute lan egiteko gutxieneko adina. Hitzarmen hori 175 herrialdek berretsi dute, baina horien artean ez daude Australia, Estatu Batuak, Iran eta Somalia, besteak beste.



dituzte oraindik, eta hurrek, *de facto*, familia-taldearen biziraupenerako beharrezkoak diren jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzte. Halaxe gertatzen da Saharatik hegoalderako Afrikako landa-eremu gehienetan.

Hirugarren fasean, jaiotza-tasa ordezkapen-tasara hurbiltzen da eta, ondorioz, biztanleria aldaketarik gabe mantentzen da. Emakumeak lan-merkatuan sartzeak eta gizarte-ereduetan gertatutako aldaketek jaiotza-tasaren beherakada handia eragiten dute, eta ordurako bizi-itxaropena handia denez, biztanleriaren hazkunde motela gertatzen da. Fase honetan dibidendu demografikoa desagertzen has daiteke herrialde batzuetan; ondorioz, lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren hazkundera txikiagoa izaten da legez lan egin ezin duen biztanleriaren hazkundera baino.

Azkenik, trantsizio demografikoaren laugarren faseak jaiotza-tasa oso txikiak ditu bereizgarri, herrialde batzuetan ordezkapen-tasa baino txikiagoak, eta horrek automatikoki biztanleria gutxitzea dakar, migrazio-mugimendurik gabeko egoera batean gaudela suposatuz. Bizi-itxaropena handia izaten denez, administrazioaren helburuetako bat zahartzarora kudeatzea izaten da. Nazio Batuen aurreikuspenen arabera, XXII. mendearen hasieran biztanleriak hazteari utziko dio.



### 3. Munduko egoera demografikoa

Munduko populazioa XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera hazi da bereziki, iraganeko hilkortasun-kausa nagusietako batzuek indarra galdu zutenean –ez ziren desagertu, eta planetako zenbait eremutan oso presente jarraitzen dute–, esaterako, gerrek, gaixotasun hilgarriek eta elikadura-baldintza txar orokortuek.

Zenbatesten denez, I. mendean populazioa 200 milioi pertsonakoa zen, eta 1800ean 1.000 milioikoa besterik ez; 1950ean, munduko populazioa 2.000 milioi baino zertxobait handiagoa zen, eta 2023an 8.000 milioitik gorakoa, Nazio Batuen Biztanleria Sailaren arabera.

Biztanleriaren banaketa geografikoa oso desparekoa da eta, era berean, eskualde bakoitzaren dinamika oso desberdina da, 1. taulan adierazten den moduan. Ikusten denez, diru-sarrera txikiko herrialdeetan bizi den biztanleriaren ehunekoa hazten ari da; izan ere, gaur egun, % 9,4 toki horietan bizi da, eta mende amaieran % 21,9 izango dira. Joera horrek erronka izugarriak dakartza, lehen aipatutako Davosko Foroak adierazten duenez. Aitzitik, herrialde aberatsenetako biztanleria, munduko populazioaren heren bat izatetik, hamarren bat pasatxo izatera igaroko da mende eta erdian (1950 eta 2100 artean). Biztanleriaren % 83 errenta ertaineko herrialdeetan bizi da, eta % 13 herrialde pobretuenetan. Dinamika hori, gainera, areagotu egingo da etorkizunean. Eskualdeen arabera behatzen badugu, Asiak munduko biztanleriaren ia % 60 biltzen du eta Afrikak eta Europak jarraitzen diote, urrunetik. Alabaina, aurreikuspenek erakusten dutenez, Afrikako biztanleria modu erlatiboan hazten ari da: 20 urtetik behin bikoiztu egiten da, eta 2100. urtean munduko biztanleriaren % 38ra hurbilduko da.

1. taula. Munduko populazioa:									
Milioi pertsonatan eta guztizkoaren ehunekotan									
	1950	1980	1990	2000	2015	2023	2030	2050	2100
MUNDUA, milioitan	2.525	4.440	5.310	6.127	7.349	8.045	8.546	9.709	10.349
Errenta-mailaren arabera, ehunekotan									
Errenta handiko herrialdeak	32,2	24,4	21,5	19,4	17,0	15,6	14,9	13,2	11,5
Errenta ertaineko herrialdeak	67,8	75,6	78,4	80,6	83,0	74,6	74,1	72,3	66,3
Errenta txikiko herrialdeak	7,8	8,9	9,6	10,8	13,0	9,4	10,6	14,1	21,9
Errenta-talderik ez						0,4	0,4	0,4	0,4
Kontinenteak, ehunekotan									
Afrika	9,1	10,8	11,9	13,3	16,1	18,2	20,0	25,6	37,9
Asia	55,2	59,1	60,3	60,6	59,8	59,1	58,0	54,5	45,2
Europa	21,7	15,6	13,6	11,8	10,0	9,2	8,6	7,2	5,7
Latinoamerika eta Karibea	6,7	8,2	8,4	8,6	8,6	8,3	8,2	7,7	6,3
Ipar Amerika	6,8	5,7	5,3	5,1	4,9	4,7	4,6	4,3	4,3
Ozeania	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,7

Iturria: Egileak egina, Nazio Batuen *Population Division* lanean oinarrituta.


Sahararik hegoalderako Afrika, beraz, «eremu beroetako» bat da demografiaren arloan. Jaiotza-tasak oso handiak dira eta, nahiz eta heriotza-tasa altu samarrak eta bizi-itxaropen txikia izan, biztanleriaren hazkunde handia eragiten dute. Nigeriak munduko jaiotza-tasarik handiena dauka, eta munduko hirugarren herrialderik populatuena izango da mendearen erdialdean. Gaur egun, populazioaren hazkunderen erdia baino gehiago Nigerian, Kongon, Tanzanian, Pakistanen, Etiopian, Angolan eta Nigerren gertatzen da. Herrialde horiek guztiek garapen-maila txikiak dituzte, eta agerian jartzen dute biztanleriaren aukerak eta ongizatea areagotzeko premia. Gainera, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen ehuneko oso handia da, eta itxaropen zapuztuko gaur egungo egoera mantentzen bada, gatazka handiagoak sor daitezke. Aspalditik, *youth bulge* deritzenak aztertzen ari dira, gatazkak eta iraultza bortitzak sortzeko izan dezaketen joeragatik (Urdal, 2006). Pobreziaren, indarkeriaren eta, gero eta gehiago, ingurumen-presioen eraginez, herritarrak beren jaioterrietatik alde egiten ari dira. Saheleko biztanleriaren hazkundera ikusita, Europako zenbait talde kezkatuta daude Mediterraneoaren hegoaldeko kostaldetik datozen migrazio-presioek eta Erkidegoko migrazio-politiketarako erronkek (batez ere Espainiak eta Italiak aurrez aurre dituztenek) izan dezaketen gorakadagatik.

Asiak, munduko biztanleriaren gehiengoa han biltzen den arren, etorkizunean garrantzi erlatiboaren galera izango du, eta munduko biztanleriaren % 60 izatetik XXI. mendean zehar % 45,2 izatera igaroko da. Gainera, Asiako herrialdeetako dinamika nazionalak aldatuko dira. Indiak dagoeneko Txina gainditu du biztanleriari dagokionez, eta bigarren postuan utzi du azken hori.

Europar, zahartzearen eta jaiotza-tasa txikiagoen ondorioz, demografia-arloko garrantzia nabarmen txikiagotuko da, eta gauza bera gertatuko da Ipar Amerikan eta Latinoamerikan ere, baina indar txikiagoz.

### 1. mapa: Biztanleriaren hazkundera 2020-2025

Biztanleriaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa (%), 2020-2025 (batez besteko aldaeraren proiektzioa)



© 2022 Nazio Batuak, Gizarte eta Ekonomia Gaietarako Saila, Biztanleriaren Arloa. Creative Commons lizentziarekin, CC BY 3.0 IGO.  
 Datuen iturria: Nazio Batuak, Gizarte eta Ekonomia Gaietarako Saila, Biztanleriaren Arloa. World Population Prospects 2019  
<http://population.un.org/wpp/>

Mapa honetan erabilitako izendapenek eta materialaren aurkezpenak ez dute Nazio Batuen Idazkaritzaren inolako iritzirik adierazten herrialde, hiri edo eskualde edo aipatutakoen estatus juridikoari edo agintariei buruz, ezta horien mugei buruz ere. Puntudun lerroak, gutxi gorabehera, India eta Pakistanen artean adostutako Jammu eta Kaxmirreko Kontrol-lerroa adierazten du. Aldeek oraindik ez dute sinatu Jammu eta Kaxmirreko ituna. Hego Sudango Errepublikako behin betiko muga oraindik zehazteko dago. Gatazka dago Argentinako eta Erresuma Batuko Britania Handiko eta Ipar Irlandako gobernuen artean, Flaklanden gainean (Malvina Uharteak).

Iturria: Division Population, United Nations.

Biztanleriaren hazkundeak hainbat ondorio ditu, zeinak egile asko kezkatu dituzten historikoki. Esaterako, pertsona-kopurua handitzeak presio handiagoa eragiten du baliabide naturaletan; izan ere, oro har, energiaren, elikagaien, mineralen, ondasun manufakturatuen eta abarren eskaria handitzen da, eta horrek kutsadura areagotzea edo baliabide ez-berriztagarrien stocka murriztea eragiten du. Hain zuzen ere, biztanleria elikatzeke eta ekoizpen-sektorea mantentzeko beharrezkoak diren baliabide naturalak lortzeko premiak eragin du Txinak Afrikan eta Latinoamerikan izan duen hedapena. Lurren erosketa masiboak, aldi berean, tentsio handiak eragin ditu, hainbat herrialdetan agerian geratu denez. Inguruko herrialdeen hazkunde desorekatua ere ohiko kontsiderazio geopolitikoetako bat izan da. Adibidez, horixe geratu da agerian palestinarren eta israeldarren jaiotza-tasan dagoen alde izugarria ikusita: lehenengoek jaiotza-tasa handiagoa dute, eta bigarrenak beldur dira borroka biztanleria handiagoa izateagatik eta haren dinamikatik irabaziko den.


Biztanleriak bere dinamika ditu eta, gaur egun, biztanleria hirien inguruan pilatzen ari da; bestalde, landa-eremua husten eta biztanleria zahartzen ari da mundu osoan, eta migrazio-prozesu handiak ari dira gertatzen, nagusiki eskualde barrukoak, hurrengo idazpuruetan ikus daitezkeenez.

### 3.1. Hirietako pilaketa eta landa-eremuko jendegabetzea

Nekazaritza eta sedentarismoa agertu zirenean, jendea giza kokalekuen inguruan biltzen hasi ziren, elkartze horretatik abantaila jakin batzuk lortzeko, esaterako, segurtasuna, zerbitzu komunak jasotzea, azpiegiturak aprobetxatzea, etab.

XX. mendean, jada, urbanizazio-prozesu argi bat gertatu zen; hala, mendearen amaieran, munduko biztanleriaren ia % 50 hirietan bizi zen, eta etorkizuneko joera gorakorra da (ikus 2. grafikoa). Gerra Hotzaren amaierarekin, ia jenderik gabeko lur-eremu handiak izatearen kezka txikiagotu zen, bloke sobietarraren hedapenarekiko beldurra desagertu zelako; izan ere, populatu gabeko eremuek hedapen hori erraztu zezaketen. Nolanahi ere, kezka hori itzultzen ari da eta, adibidez, Errusiak Siberiako lurraldea jendeztatzeko gero eta interes handiagoa du. Modernizazio-prozesu aurreratuagoak dituzten herrialdeetan, biztanleriaren eta lurraldearen arteko desoreka oso handia da, eta horrek agerian jarri ditu jenderik gabeko lurraldeen arazoa eta politika publikoen erronka berriak. Gero eta gehiago, landa-eremuko biztanleei zerbitzuak eta aukerak emateko politika publikoak garatzen direla ikusten da.

## 2. grafikoa. Biztanleriaren banaketa hiri- eta landa-eremuan, guztizkoaren ehunekoan




Iturria: Egileak egina, Nazio Batuen *Population Division* lanean oinarrituta.

Alde handiak daude eskualdeen artean, diru-sarreraren mailaren zein eremu geografikoaren arabera sailkatuta behatzen baditugu. Garapen-maila handieneko eskualdeetan (adibidez, Europan eta Ipar Amerikan), biztanle-kontzentrazio handiagoa dago hiri-eremuan (% 70 eta % 80 artean) garapen-maila txikiagoak dituzten beste eskualdeetan baino (Afrikan eta Asian), zeinetan hirietako biztanleriak % 40 eta % 50 arteko garrantzia duen (2. mapa). COVID-19aren pandemiak berriz piztu zuen landa-eremuekiko interesa, biztanle gutxiko eremuetan kutsatzeko arriskua txikiagoa zelako eta, ondorioz, urruntze sozialeko neurriak ez zirelako beste tokietan bezain gogorrak.

Hala ere, desberdintasun handia dago herrialdeen artean, baita eskualde berekoetan ere, batzuetan herrialdearen baldintza geografikoengatik (Egipton, esaterako, landa-eremuko biztanleriaren ehuneko handiagoa dago inguruko herrialdeetan baino, Niloko Deltak nekazaritzarako ematen dituen aukerengatik), eta beste batzuetan ekoizpenaren espezializazioagatik (Gabonen, esaterako, hiri-eremuko biztanleriak inguruko herrialdeetan baino garrantzi handiagoa du, *offshore* petrolioarekiko mendekotasun ekonomiko handia duelako eta jarduerak kostaldekoko bi hiri handitan biltzen direlako). Herrialde batzuetan, biztanleriaren ehuneko handi bat hiri bakar batean biltzen da. Horixe gertatzen da, esaterako, Singapur eta Hong Kong estatu-hirietan, baina baita beste herrialde batzuetan ere (Kuwait, Mongolia, Panama, Kongo); izan ere, herrialdeon hedadura geografikoa handia izan arren, zerbitzuak eta enplegu-aukerak hiriburuan pilatzen dira, eta horrek herritarrak erakartzen ditu.

## 2. mapa. Hirietako biztanleria. 2030




Iturria: Nazio Batuak

Urbanizazio-prozesuak gero eta garrantzi handiagoa duenez, funtsezkoa da hiri-ereduari buruz hausnartzea, hiriok integratzaileak eta jasangarriak izango direla ziurtatzeko. Hain zuzen ere, CO<sub>2</sub> emisioen % 70 hirietan sortzen da. Nazioartean, hiri-ereduaren inguruko kezka handia dago, eta halaxe dago jasota GJHetan (11. GJH, Hiri eta Komunitate Jasangarriak) eta ONU-HABITAT erakundeak bultzatutako Hiri Agendan.

Lehenago adierazi dugun moduan, hainbat urtez, hirien plangintza erronka garrantzitsuenetako bat dela esan izan da, haren porrota munduko ekonomiarako arrisku posibletzat hartzen baitzen, eta horren adierazpenik agerikoena biztanleak txaboletan pilatzea da<sup>5</sup>, hiri-pobreziako, gizarte-bazterkeriako, marjinaltasuneko eta, oro har, segurtasunik gabeko eta indarkeriako gune handiak baitira. Txaboletan bizi diren herritarren ehunekoak behera egin du horri buruzko datuak dituzten herrialde gehienetan, baina zifrak oso handiak dira oraindik ere (3. grafikoa).

5 Nazio Batuek erabiltzen duten terminologia, zerbitzu publikorik eta hiri-antolamendurik ez duten aukera ekonomiko urriak dituzten auzoez aritzeko. Herrialdeen arabera, askotariko terminologia dago halakoez aritzeko: favelak, *ranchitos*, auzoak, herriak, aldiriak, etab.

### 3. grafikoa. Txabola-auzoetan bizi den biztanleria (hirietako biztanleriaren %)



Iturria: Population Division, United Nations

Beste aldaketa handi bat hirien tamainan gertatu zen, bizi-kalitatearekin eta jasangarritasunarekin lotuta. Hiri ertainetako bizi-kalitatea handiagoa izan daiteke, eta ingurumena gehiago errespetatzen dute; hala ere, ekonomikoki bideragarriak izan behar dute, aglomerazio-maila optimoa lortuta, saturaziora iritsi gabe. Hala, 1980an 5 milioi pertsona baino gehiagoko 13 hiri zeuden arren (horietatik 5ek 10 milioi biztanle baino gehiago zituzten), 2020an halako 21 zeuden (horietako 13 megahiriak), eta 2035ean 25 izango direla kalkulatu da (16 megahiri), Nazio Batuen hiriei buruzko argitalpenen arabera (2. taula). Gainera, megahiri gehienak garapen bidean dauden herrialdeetan daude, esaterako, Jakarta, Delhi, Manila, Sao Paulo, Mexiko Hiria, Dhaka, Kairo, Bangkok, Buenos Aires eta Kalkuta, zeinak 10 milioi pertsona baino gehiago baitituzte. Hiri handiek eta, zehazki, megahiriekin arazo larriak sortzen dituzte ekonomian, gizartean eta jasangarritasunean. Eta hedadura handiko arazoak dira, 2050erako beste 3.000 milioi pertsona megahiritan biziko direla aurreikusten baita.

2. taula. Munduko biztanleria eta eskualdeen arabera, hirien tamainaren arabera, guztizkoaren ehunekoa

Hiri-kokalekuak, tamainaren arabera	Mundua		Herrialde garatuak		Garapen bideko herrialdeak	
	2020	2035	2020	2035	2020	2035
10 milioi edo gehiago	13	16	11	12	13	16
5 eta 10 milioi artean	8	9	9	10	8	9
1 eta 5 milioi artean	22	23	21	21	23	23
500.000 eta milioi 1 artean	10	9	10	10	10	9
300.000 eta 500.000 artean	6	6	7	7	6	6
300.000 baino gutxiago	41	37	42	40	41	37
	Afrika		Asia		Europa	
	2020	2035	2020	2035	2020	2035
10 milioi edo gehiago	8	11	15	19	4	6
5 eta 10 milioi artean	6	13	9	8	5	3
1 eta 5 milioi artean	22	19	22	23	16	17
500.000 eta milioi 1 artean	9	9	10	10	11	11
300.000 eta 500.000 artean	6	5	6	6	8	8
300.000 baino gutxiago	48	43	38	34	57	56
	Latinoamerika eta Karibea		Ipar Amerika		Ozeania	
	2020	2035	2020	2035	2020	2035
10 milioi edo gehiago	17	17	10	10	0	0
5 eta 10 milioi artean	3	5	17	18	0	34
1 eta 5 milioi artean	25	27	30	31	60	25
500.000 eta milioi 1 artean	8	6	13	12	2	7
300.000 eta 500.000 artean	6	7	7	7	11	6
300.000 baino gutxiago	40	38	24	22	27	28

Iturria: Egileak egina, Nazio Batuen *Population Division* lanean oinarrituta.

Eskualdeen arteko aldeak oso handiak dira, munduko eredu ekonomiko eta sozialen erakusgarri (2. taula). European, hiri txiki eta ertainek garrantzi handiagoa dute, lan-aukeren eta zerbitzuen deszentralizazioaren adierazgarri, besteak beste. Adibide gisa, industria sendoa eta zerbitzu-publiko eta aukera handiak ematen dituzten hiri ertain asko aipa daitezke (Toulouse, Stuttgart, Gasteiz, etab.); ezaugarri horiei esker, bizitzeko leku bikainak dira.


Aldiz, Ipar Amerikan, hiri ertain eta txikien (500.000 pertsona baino gutxiagokoak) ehunekoa txikiagoa da, eta mundu-mailan garrantzi handiagoa dute 5 milioi pertsonatik gorako hiriek. Hirien barne-dinamika ere desberdina da eta, oro har, oso alde nabarmena dago ekonomikoki erabilgarria den hiri-eremuaren (industrialdeak eta administrazio-guneak) eta bizitegi-eremuaren artean; gainera, elkarrengandik urrun daude eta beharrezkoa da garraio pribatua erabiltzea. Ondorioz, ez dira oso jasangarriak ingurumenari dagokionez.



Kontinente guztietako hiriek jasaten dituzte arazo hauek: kutsadura gero eta handiagoa, azpiegituren saturazioa eta trafikoaren kolapsoa, garraibide publikoena barne. Gainera, COVID-19ak beste bultzada bat eman die garraibide pribatuei, garraio publikoetan gaitza hartzeko beldurragatik; ondorioz, egoera politika ausarten bidez zuzentzen ez bada, kolapso handiagoa sortuko da eta kutsadura areagotuko da.

### 3.2. Biztanleriaren zahartzea

Etorkizun hurbilean beste erronka bat dugu aurrez aurre: biztanleriaren zahartzea eta horrek ekonomian duen inpaktua. Biztanleriaren piramidea zanpatzen ari da eta hori gero eta kezka-iturri handiagoa da, nagusiki herrialde garatuetan, baina areagotzen ari da suspertzen ari diren ekonomietan ere, geroago ikusiko dugun moduan. Izan ere, esan ohi da Txina lehenago izango dela herrialde «zahar» bat, herrialde aberats bat baino (4. grafikoa).




Iturria: Population Division, United Nations

Biztanleriaren zahartzea prozesu orokortua da, baina desberdintasun handiak daude eskualdeen artean. Zahartze-maila handienak herrialde garatuenetan erregistratzen dira, bereziki Europar Batasunean (3. mapa eta 3. taula). Herrialde askotan biztanleriak behera egin du, eta, egin ez duen kasuetan, migratzaileak etorri direlako izan da, gazteagoak eta jaiotza-tasa handiagoarekin. Egia da etorkinen etorrera biztanleriaren batez besteko adina jaisteko eta jaiotza-tasa handitzeko aktibo bat dela, baina, halaber, pixkanaka tokiko patrioiak bereganatzen hasten dira eta, beraz, urteak igaro ahala, emakume bakoitzak dituen seme-alaben kopuruak behera egiten du.

Askotariko iritziak eta politikak daude zahartzea arintzeko hirugarren herrialdeetako biztanleak erakartzearen komenigarritasunaz (edo komenigarritasunik ezaz). Kanadak eta Australiak, adibidez, migratzaileak erakartzeko politikak jarri dituzte martxan, baina profil kualifikatuenean aldeko diskriminazio argi batekin. Beste herrialde batzuek politika irekia dute, prestakuntza-mailarik lehenetsi gabe, eta beste batzuek mugak ixteko migrazio-politika zorrotzak dituzte, geroago ikusiko dugun moduan. Azken hamarkadetan, atzerritarren integrazio- eta egokitzapen-mekanismoetan oinarritu da eztabaida, bereziki bigarren eta hirugarren belaunaldietako etorkinei dagokienez.

3. mapa. 65 urtetik gorako biztanleak. Guztizkoaren ehunekoa, 2020.



Iturria: Nazio Batuak

Adinekoen mendekotasun-tasa, hau da, 65 urtetik gorako biztanleriaren ratioa 15-64 urteko biztanleriarekiko, erabilgarria da zahartzeak eragindako finantza-presiora hurbiltzeko. Bestela esanda, adin altuagatik lan-merkatutik kanpo dagoen biztanleria eta lan egiteko adinean egon daitekeen biztanleria alderatzen ditu, alde batera utzita herrialde bakoitzaren legezko berezitasunak, lan-merkatuan parte hartzeko ezarritako gutxieneko eta gehieneko adinei dagokienez. Datuek erakusten dutenez, mendekotasun hori orokortu egin da mundu mailan, 1950ean 8,5 izatetik 2021ean 14,8 izatera

igaro baita. Aldeak oso nabarmenak dira eskualdeen artean. Europak eta garatutako beste ekonomia batzuek mendekotasun-tasa handiagoa dute, baina ezin da ahaztu adierazle hori nabarmen ari dela hazten Txinan, azkar ari baita zahartzen. Afrika, oraingoz, salbuespena da, hango biztanleria oso gaztea delako eta zahartze-joerak ia ez direlako hautematen (3. taula).

Azken hamarkadetan, Europako herrialde batzuetan Ongizate Estatuaren laugarren zutabea deritzona hasi dira garatzen: mendekotasun-politikak<sup>6</sup>; beste herrialde batzuetan, berriz, ongizatea zaintzeko tradizio handiagoa zuten, eta dagoeneko politika nagusietako bat zen.

3. taula. Mendekotasunaren ratioa <sup>7</sup>							
	1950	2010	2021		1950	2010	2021
Mundua	8,5	11,7	14,8	Latinoamerika eta Karibea	5,8	10,5	13,3
Afrika	6,0	5,8	6,2	Ipar Amerika	12,6	19,5	25,9
Asia	7,1	10,3	14,0	Ozeania	11,4	16,1	19,7
Europa	12,1	23,9	29,9				

Iturria: Nazio Batuen Biztanleriaren Banaketa

Herrialdeetan adineko pertsonen ehunekoak gora egin duenez, ezinbestekoa da hausnartzea: Estatuak zer zerbitzu espezializatu eman behar du? Eta zer diru-sarrera du jendeak bere bizitza finantzatzeko, lan-merkatutik kanpo dagoenean? Galdera horien erantzuna oso desberdina da herrialdeen arabera; hain zuzen, izugarritzko aldea dago ongizate-estatuak duten herrialdeen eta ez dutenen erantzunen artean.

Lehenengo alderdiari dagokionez, Estatuak bere politika publikoak egokitu behar ditu biztanleriaren zahartze-prozesua gertatzen denean. Besteak beste, nabarmentzekoak dira gizarte-gastu adinekoentzako zerbitzuetara birbideratzeko neurriak (eguneko zentroak, egoitzak, geriatría, etab.). Era berean, migratzaile gazteak eskulan gisa erakartzeko politikak egin daitezke; halakoetan, eztabaida politikoa handiagoa da, eta migrazioaren aldeko eta kontrako grina ideologikoak sortzen ditu, aurreratu dugun moduan.

Bigarren alderdia kontuan hartuta, biztanleria lan-merkatutik ateratzeak esan nahi du pertsonak bere lanagatik soldata bat jasotzeari uzten diola eta, beraz, beste diru-iturri batzuk beharko dituela bizirauteko, adibidez, pentsio bat. Hortxe aurki ditzakegu desberdintasun handiak mundu-mailan, hala dagoen sistemari nola estaldura-mailari dagokionez, eta horrek zuzeneko eragina du herritarren ongizatean, bizitzako azken hamarkadetan.

Bi pentsio-eredu desberdin daude: banaketaren eredu (publiko-solidarioa) eta kapitalizazio-eredu (pribatu-indibiduala). Banaketaren pentsio-ereduaren bereizgarri da une jakin batean lanean ari diren herritarrek finantzatzen dituztela, batez ere kotizazioekin, une horretan ordaintzen ari diren pentsioak. Eredu hori arriskuan jartzen da biztanleriaren piramidea zanpatzen doan heinean, sistemari baliabideak ematen dizkieten herritarrak gutxitzen baitira (langileen gizarte-kotizazioak), eta pentsioak jasotzen dituzten pertsonen kopurua handitzen baita (erretiratuak). Herrialde batzuetan, langileen kotizazioetatik ez datozen beste diru-sarrera batzuekin finantzatzen (edo osatzen) dituzte pentsioak. Norvegian, adibidez, hidrokarburoen esportazioetatik datozen diru-sarrerak erabiltzen dira. Bestalde, kapitalizazio-pentsioen eredu daukagu, zeina pertsona bakoitzak bere lan-bizitzan modu indibidualean aurretzean

6 Espainian, adibidez, 2006an txertatu zuten mendekotasunaren arreta, 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa indarrean sartu zenean.

7 Oharra: 15 eta 64 urte bitarteko 100 pertsonako dauden 65 urtetik gorako biztanleen ratioa.

oinarrizten baita. Langile bakoitzak bere diru-sarreraren zati bat –sarritan, legeak ezarritako nahitaezko ehunekoa– inbertsio-funts batera bideratzen du, eta funts horretan zer arrisku- eta errentagarritasun-maila nahi duen erabaki behar du. Erretiroa hartzean, funts horietan gordailututako baliabideak norberaren erretiroa ordaintzeko erabiliko dira. Eredu horretan, banakako funtsetan eskuragarri dauden baliabideak (finantza-merkatuetako inbertsioek handitu edo txikiagotuak) dira muga. Zenbait kritika egiten zaizkio, besteak beste, herritarrei gehiegizko erantzukizuna ematea, finantza-merkatuan funtsezko erabakiak baloratzeko ezagutzak izatea eskatzen baitzaie, eta aurrezkoa amaitzeko dagoen arriskua.

Estatuek aintzat hartu beharko dituzte, beren politika publikoetan, pentsioak, horien ereduak, kudeaketa eta xedea, baita eredu pribatuak aukeratzen dituzten herrialdeetan ere.

### 3.3. Migrazio-mugimenduak

Migrazio-mugimenduen azterketak agerian jartzen du globalizazioaren kontraesanik handiena. Globalizazioa defendatzen dutenek ondasunen, zerbitzuen eta kapitalaren zirkulazio askearen onurak azpimarratzen dituzte, baina, aldi berean, lanaren zirkulazio askea mugatzeko politikak ezartzen dituzte, eta ez da ahaztu behar hori ere produkzio-faktorea dela. Izan ere, nazioarteko migrazio-mugimenduak kuantitatiboki mugatuak dira: 2020an munduko biztanleen % 3,6 bizi zen bere jatorriko herrialdetik kanpo. Zifra horiek askoz txikiagoak dira nazioarteko merkataritzak eta kapital-mugimenduenak baino, munduko BPGarekin alderatuta. Gainera, zifra hori ez da asko hazi azken hamarkadetan, 1990ean % 2,9koa baitzen. Nolanahi ere, desberdintasun handiak daude eskualdeen arabera, gero ikusiko dugun moduan.

Urbanizazio-prozesua aztertzean, herritarrek landa-eremutik hirira egindako mugimenduek izandako garrantzia aipatu dugu, eta mugimendu horiek, funtsean, nazionalak izan ziren; kasu honetan, berriz, pertsonen mugaz gaindiko mugimenduak aztertuko ditugu, hau da, herrialdeen artekoak.

Emigrazioa ez da prozesu erraza, eta aintzat hartu behar dira askotariko elementu ekonomiko, sozial eta pertsonalak erabakia hartzeko orduan, zeina, azkenean, familia-eremu pribatuan hartzen baita. Gainera, faktore batzuk aldekoak eta kontrakoak dira aldi berean, eta jatorrizko herrialdeari, helmugari eta lekualdaketari berari buruzkoak izan daitezke (Van den Berg eta Bodvarsson, 2009).

Pertsonen mugaz gaindiko joan-etorriak honela sailka daitezke: 1) borondatezko mugimenduak, oro har, arrazoi ekonomikoengatik edo familia berriz elkartzeagatik izaten direnak; 2) nahigabeko edo nahitaezko mugimenduak, oro har errefuxiatuekin lotzen direnak; eta 3) pertsonen salerosketa, zeina, jakina, nahigabekoa baita, legez kanpokoa eta etikoki eta moralki gaitzesgarria izateaz gain, eta dokumentu honetan azterketatik kanpo utziko dugu.

Sailkapen hori erabilgarria da, nazioarteko zuzenbideak horietako bakoitzerako lege-xedapen desberdinak ezartzen dituelako. Motibazio ekonomikoak dituzten migratzaileen legezko estaldura eta eskubideek oinarri hartzen dituzte Lanaren Nazioarteko Erakundeak langile migratzaileen eskubideei buruz hitzartutako zenbait hitzarmen, esaterako, langile migratzaileei buruzko 97. eta 143. Hitzarmenak (azken hori berrikusia), baita etxeko eremuko emakume langileentzako sinatutako hitzarmen espezifikoak ere. Bestalde, nahitaez desplazatutako herritarren eskubideak 1951ko Errefuxiatu Politikoen Estatutuari buruzko Hitzarmenaren eta 1967ko Protokoloaren bidez arautzen dira, zeinak berrespen-maila askoz ere handiagoa duten. Aldiz, lege-hutsune bat dago gerora aipatuko dugun «klima-errefuxiatuen» (Pajares, 2020) fenomeno berriaren inguruan.

Lehenago adierazi dugun moduan, migrazioen bolumena munduko biztanleriaren % 3,6 ingurukoa da, eta alde handiak daude eskualdeen artean. Eskualde garatuenean atzerritar gehiago dituzte, ia % 16

Ipar Amerikan eta % 11 baino gehiago Europan. Ipar Amerikara, esaterako, historikoki Mexikoko eta Erdialdeko Amerikako langile asko joan dira, eta horregatik dago halako migratzaile-kopuru handia; Europako herrialdetan, berriz, europarrek Schengen Eremuaren barruan nolabaiteko mugikortasuna dutelako agertzen dira migratzaileen bolumen handi horiek, nahiz eta Europar Batasunetik kanpoko biztanleriaren presentzia ere handia izan, herrialde batzuetan behintzat. Herrialdeen xehetasunetara jotzen badugu, aldeak nabarmen handitzen dira; hala, herrialde batzuetan, populazioaren % 50 baino gehiago atzerritarra da, esaterako, Persiar Golkoko petrolio-estatu askotan eta Singapurren edo Luxenburgoren moduko herrialde txikietan (4. taula).

4. taula. Biztanleria migratzailea. Biztanleria migratzailearen stocka biztanleria osoarekiko. Ehunekotan							
	1990	1995	2000	2005	2010	2015	2020
Mundua	2,9	2,8	2,8	2,9	3,2	3,4	3,6
Afrika	2,5	2,3	1,9	1,8	1,7	1,9	1,9
Asia	1,5	1,3	1,3	1,3	1,6	1,7	1,8
Ipar Amerika	9,9	11,3	12,9	13,9	14,8	15,6	15,9
Europa	6,9	7,4	7,8	8,7	9,6	10,1	11,6
Latinoamerika eta Karibea	1,6	1,4	1,3	1,3	1,4	1,5	2,3
Ozeania	17,3	17,1	17,1	17,9	19,3	20,3	22,0

Iturria: Nazio Batuak

Migratzaileentzat herrialde garatuak dira helmuga nagusiak; nolahi ere, Asian, herrialdeen arteko produkzio-sistemen harreman gero eta handiagoen eta balio-kate globalen artikulazioaren ondoriozko mugimenduei esker, kontinente hori gero eta helmuga garrantzitsuagoa da migratzaileentzat, eta Europaren antzeko migratzaile-kopurua izatera iritsi dira. Neurri txikiagoan bada ere, Afrika ere gero eta garrantzitsuagoa da migratzaileen helmuga gisa, eskualde barruko mugimenduen hazkundearen ondorioz; adibidez, migrazio-fluxuak daude Nigeriatik Ghanara, hazkunde ekonomikoak eta egonkortasun handiagoak bultzatuta. Migrazio-zirkuitu garrantzitsuenetako batzuk oso ezagunak dira, esate baterako, Mexiko-Estatu Batuak eta Siria-Turkia; beste batzuk, agian, ez hainbeste: India-Arabiari Emirerriak, Errusia-Ukraina (eta alderantziz), Bangladesh-India eta Kazakhstan-Errusia (eta alderantziz).

Baina, aurreratu dugun moduan, pertsonen nahigabeko mugimenduak daude, errefuxiatuenak<sup>8</sup>. Nazioarteko zuzenbideak ezartzen duenez, errefuxiatua izango da «*arrazaz, erlijio, nazionalitate edo gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik edo iritzi politiko jakin batzuk izateagatik jazarria izateko arrazoizko beldurrak direla-eta, bere jatorriko herrialdetik kanpo dagoena eta herrialde horren babesari heldu ezin diona edo, beldur horiengatik, heldu nahi ez diona; edo, nazionalitaterik izan gabe eta, gertaera horien ondorioz, lehen ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo egonik, hara itzuli ezin dena edo, beldur horiengatik, itzuli nahi ez duena*».

8 Hona hemen ezagutu beharreko beste kontzeptu batzuk, zeinak maiz nahastu egiten baitira: 1) Asilo-eskatzailea da bere herrialdetik ihes egin ondoren beste herrialde batean babesari bilatzen duena, asiloa eta errefuxiatu gisa aitortua izateko eskubidea eskatzen duena eta babes juridikoa eta laguntza materiala jasotzen dituena. Asilo-eskatzaile batek frogatu behar du bere jatorriko herrialdean jazarpenari dion beldurra ondo funtsatuta dagoela, eta 2) Aberrigabea da ezin herrialdetako herritarra ez den norbait. Herritartasuna da Estatu baten eta gizabanako baten arteko legezko lotura; horretan oinarrituta, norbanakoak zenbait eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta abar ditu, eta Estatuak eta herritarrek zenbait erantzukizun bereganatzen dituzte. Pertsona bat zenbait arrazoirengatik bihurtu daiteke aberrigabe, besteak beste, erabaki subiranoak, legalak, teknikoak edo administratiboak egon daitezke tartean. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak nabarmentzen duenez, «*pertsona orok du nazionalitate bat izateko eskubidea*».

Gaur egun, gatazkak dira nahitaezko mugimenduen arrazoi nagusiak; hala, nabarmentzekoak dira 1990eko Afrikako Aintzira Handien gatazkak eta Siriako, Irakeko, Afganistango, Libiako eta, oraintsuago, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerrek eragindako exodoak. Nolanahi ere, aipagarriak dira giza eskubideen etengabeko urraketak, zeinak nahitaezko desplazamenduak eragiten baitituzte; halako lekualdaketak ikus ditzakegu, adibidez, rohingyen, sahararren, erregimen diktatorialek jazarritako politikarien eta abarren kasuetan. Hasiera batean, definizio hori kasu indibidualetarako soilik pentsatu zuten, baina gerretatik ihes egiten duten pertsonak orokortu direnez, kontzeptua interpretatzeko modu berriak sortu dira.

**2022 amaieran 108,4 milioi pertsona zeuden indarrez desplazatuta munduan.** Horietatik 29,4 milioi Nazio Batuen Errefuxiatuen Agentziaren (ACNUR) babespeko errefuxiatuak ziren, 5,9 milioi palestinar errefuxiatu Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren (UNRWA) babespekoak, 5,4 milioi **asilo-eskatzaileak**, eta 5,2 milioi beste egoera batean zeuden; guztiak mugaz gaindiko nahitaezko desplazamenduak dira. Gainerakoak (62,5 milioi) barneko desplazatuak ziren.

Ezbehar ekonomiko, sozial, politiko eta, batez ere, pertsonal horrek ez dio hazteari utzi azken hamarkadetan. 1991n, nahigabeko 41,9 milioi desplazatu zeuden, eta 1997an lortu zuen gutxieneko balioa: 33,9 milioi. 2011n, etengabeko hazkundera hasi zen, eta 38,5 milioitik 108,4 milioira igaro zen 2022an.

Amerikako eta Europako muturreko taldeek, sarritan hedabideek berrmatuta, transmititzen dutenaz bestela, errefuxiatuak beren jatorrizko herrialdeetatik gertu dauden herrialdeetara joaten dira. Izan ere, 2023ko ekainaren 14an eguneratutako datuen arabera, desplazatutako pertsonen % 70 inguruko herrialdeetan hartzen dute. Turkiak ia 3,6 milioi errefuxiatu hartu ditu, munduko kopururik handiena; haren atzetik, Irango Errepublikak Islamikoak 3,4 milioi hartu ditu. Hirugarren postuan Kolonbia dago, zeinak 2,5 milioi errefuxiatu dituen, eta laugarren postuan dator Alemania, 2,1 milioirekin; hori guztia, Nazio Batuen arabera.

Aurreratu dugun moduan, gerrak nahitaezko desplazamenduen hazkunderaren arrazoi nagusi bihurtu dira. Gaur egun, errefuxiatu guztien eta nazioarteko babesa behar duten beste pertsonen % 52 hiru herrialdeetatik dator: Siriatik, Ukrainatik eta Afganistanetik, ACNURen datuen arabera.

Hala ere, gero eta gehiagotan, migrazio-prozesuetan ingurumen-arrazoiak erabakigarriak direla aipatzen dute albistegietan, sarritan, beste arrazoi batzuekin batera: gerrak, giza eskubideen urraketa eta abar. ACNURek berak larrialdi horiei buruz ohartarazi du Hego Sudaneko, Somaliako eta beste toki askotako larrialdi klimatikoan harrapatuta daudenei buruz hitz egitean, eta gizarte zibileko nazioarteko erakundeek ere gero eta gehiago ematen dute horren berri (OXFAM, 2017).

Ingurumen- eta klima-arrazoiak eragindako desplazamenduak ez daude argi eta garbi kuantifikatuta, hein handi batean migratzeko erabakia arrazoi anitzekoa izaten delako eta batzuetan bakarrik lot daitekeelako argi eta garbi klima-aldaketarekin; gainera, horren inguruko hutsune bat dago nazioarteko zuzenbidean, ez baitago ingurumen-arrazoiengatik desplazatutako pertsonen eskubideak zaintzen dituen lege-tresnarik. Ikerketetan zenbatesten denez, 175 eta 300 milioi artean daude, baina ez dago beti argi mugaz gaindiko mugimenduak soilik hartzen dituzten kontuan, edo barneko desplazamenduak ere zenbatzen diren. ACNURen arabera, urtero, 20 milioi pertsonak baino gehiagok utzi behar dute beren etxea eta herrialde barruko beste toki batzuetara joan behar dute, muturreko gertaera klimatikoaren intentsitate eta maiztasun gero eta handiagoak eragiten dituen arriskuengatik.

Arrazoi klimatikoek eragindako desplazamenduak ugariagoak dira Sahelako kostarik gabeko herrialdeetan; hain zuzen, migratzaileak kostako herrialdeetara joaten dira, batez ere Dakar, Akkra, Konakri eta antzeko hiri handietara, eta horrek presio handiagoa eragiten du hiri handi horietan, zeinak,

aldi berean, kostaldekoak izanik, etorkizunean itsas mailaren igoerak mehatxatuko dituen. Gainera, zaila da migrazio-fluxu horien norabidea aldatzea, hau da, desplazatuak landa-eremuetara itzultzea, politika publikoetan ahantzirik daudenez gero oso zigortuta dauden eremuak baitira. Azpiegitura ekonomiko eta sozialik ez dagoenez, landa-eremuko kokaguneak ez dira hirikoak bezain erakargarriak.

Lehen adierazi dugun moduan, ingurumen-arrazoiak ez daude jasota errefuxiatu-estatutua emateko justifikazioen artean, 1951ko Hitzarmenaren arabera. Ingurumenaz arduratzen diren mugimenduak presioa egiten ari dira nahitaezko desplazamenduen kausa hori aintzat hartzea ahalbidetuko duen formula bat bilatzeko, gerratik ihes egiten duten pertsonen desplazamenduak oro har sartzeko erabili diren antzeko moduekin, lehen aipatu dugunez. Hala ere, beste aditu askok diotenez, klimaren ondoriozko desplazatuak Konbentzioan sartzeko lege-tresna nabarmen aldatuko luke, eta herrialdeek berriro ere berretsi beharko lukete. Hori oso arriskutsua izan daiteke, jarrera xenofoboak dituzten muturreko mugimenduen polarizazioa eta hazkundera kontuan hartuta. Ondorioz, gerta daiteke hitzarmen berri batek halako babes handia ez lortzea eta horrek, *de facto*, errefuxiatuek gaur egun duten babesa galtzea ekarriko luke.

Zer egin daiteke orduan? Aditu batzuek diotenez, klimaren ondoriozko nahitaezko desplazamenduak kausa anitzekoak direnez, tresna tradizionalak estali ahalko lituzkete, gainerako arrazoiak aintzat hartuta. Beste aditu batzuen ustez, gaia mahaigaineratu daiteke Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren (1992) testuinguruan, protokolo berri batekin, eta eztabaida Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Biltzarretan sar daiteke. Orain arte, zenbait tresna garatu dira, adibidez: Norvegiako eta Suitzako gobernuek 2012an abiarazitako Nansen ekimena; 2012ko Kampalako Ekimena, fenomenoari aurre egiteko eskualdeko tresna juridiko lotesle gisa, nahiz eta barneko desplazamenduei buruzkoa izan; eta *Task Force on Displacement* eta *Platform on Disaster Displacement* ekimenak, besteak beste<sup>9</sup>.

Ezein irtenbide ez da ez erraza ez azkarra izango, eta babes politiko eta zibil handia beharko dute. Funtsezko bi elementu daude: aintzat hartzea mugimendua ez dela borondatezkoa, hau da, nahitaezkoa dela, eta estatuak nolabaiteko erantzukizuna dutela kausa eragilean. Hortxe dago paradoxa handiena: errefuxiatu klimatikoak «hartzeko» baliabide gehien dituzten herrialde garatuek bultzatu dute gehien desplazamenduaren kausa, hau da, klima-aldaketa.


Etorkizuna ez dago argi, eta inork ez daki zer-nolako garrantzia izango duen gai horrek agenda politikoan, ezta errefuxiatu klimatikoen eskubideen defentsa nola bideratuko den ere. Baina argi dago erronka honek ezin duela itxaron.

Aipatutakoaz gain, migrazio-mugimenduek alderdi finantzario bat dute: diru-bidalketak. Langile migratzaileek transferentzia arruntak bidaltzen dizkiete jatorrizko herrialdeetan bizi diren senideei; horrelaxe gauzatzen dira langileen diru-bidalketak. Bidalketak 1970eko hamarkadaren amaieran BPGaren % 0,3 inguru ziren, eta XXI. mendearen hasieran gorakada izaten hasi ziren; hala, 2022an % 0,8ra iritsi dira, Munduko Bankuaren datuen arabera (5. grafikoa).

---

9 Beatriz Feliperen testua (2018) kontsultatu daiteke: *Migraciones climáticas: una aproximación al panorama actual*. ECODES.


5. grafikoa. Nazioarteko diru-bidalketak. 1978-2022. BPGaren gaineko ehunekoa



Iturria: Munduko Bankua.

artean alde oso nabarmenak daude. Hala, 6. grafikoa ikus daitekeenez, zenbait ekonomia diru-bidalketen sarrerekiko oso mendekoak dira, besteak beste, Erdialdeko Amerikako herrialde gehienak eta Erdialdeko Asiako batzuk. Diru-bidalketen bidezko finantzaketa-maila handi horiek oso kaltebera bihurtzen dituzte ekonomiak, hirugarren herrialdeetako ziklo ekonomikoaren arabera.

6. grafikoa. Nazioarteko diru-bidalketak. 2022. BPGaren gaineko ehunekoa



Iturria: Munduko Bankua.



Lehen esan dugun moduan, globalizazioaren esparruan, ondasun, zerbitzu eta ekoizpen-faktoreen mugimendu-askatasunean salbuespen handi bat dago: pertsonen desplazamendu askeak (lanaren faktorea, ekoizpen-faktoreei dagokienez). Estatu nazionalek dute mugak kudeatzeko eskumena, eta autonomia dute herrialde bakoitzean sartu eta egoteko kontrolak finkatzeko. Europar Batasuna, Estatu Batuak eta Australia migrazioen aurreko «aterpe» gisa ezagutzen dira (*Le Monde Diplomatic*, 2011). Gainera, gobernuek hainbat tresna dituzte beren lurraldeetan bizi eta lan egiteko eskubidea arautzeko. Izan ere, banantze-hesiak ez ziren desagertu 1989an Berlingo Harresia desagertzearekin batera; aitzitik, ugaritzen ari dira munduan. Esaterako, Zisjordaniako, Mendebaldeko Saharako, Ceutako, Melillako, Maltako eta Mexikoren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko harresiak zutik daude oraindik ere, eta pertsonen mugimenduak geldiaraztea dute xede.

## 4. Ondorioak

Erronka demografikoek gero eta kezka handiagoa eragiten dute estatuetan eta nazioarteko esparruan, batez ere ingurumen-jasangarritasunarekin eta tentsio geopolitikoekin lotuta daudenean.

Hauek dira XXI. mendeko erronka nagusiak: biztanleriaren hazkundera, batez ere herrialde pobretuenetan; biztanleria zahartzea eta itxaropen zapuztuko gazteak; hirietako pilaketaren eta landa-eremuaren despopulazioaren arteko bizikidetzak; eta migrazio-mugimenduak.

Demografiaren teorialariek biztanleriaren eta ekonomiaren arteko harremanak aztertu dituzte, baita baliabideak ere; horien aurrean, jarrera pesimistak izan dituzte batzuetan, Malthusen joerari jarraikiz, eta baikorrak beste batzuetan, muga batzuk gainditzeko teknologiak izan dezakeen rolean oinarrituta. Jasangarritasunarekiko kezkak gai berriak mahaigaineratu ditu, esaterako, klima-aldaketak migrazioetan duen eragina eta hiri handien ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasun zalantzarria.

XXI. mendearen bigarren erdian aldaketa handi horiek gertatuko dira, baina orain egin behar zaie aurre politika publikoekin, ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren aldetik jasagarriak izan daitezzen.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- BAÑOS, Pedro (2020): *El dominio mundial: elementos del poder y claves geopolíticas*. Ariel. Bartzelona
- ESF. Economistas sin Fronteras (2020): *Demografía: cambios en el modelo reproductivo*, 36. txostena. Madril.
- DURÁN, Gemma. eta MARTÍN, Pablo. (2013): «Población y recursos» in DURÁN, Gemma, GARCÍA DE LA CRUZ, José Manuel eta SÁNCHEZ, Ángeles. (2013): *Estructura Económica y Relaciones Internacionales*. Editorial Garceta. Madril.
- FELIPE, Beatriz. (2018): *Migraciones climáticas: una aproximación al panorama actual*. ECODES. Zaragoza.
- Le Monde Diplomatic eta UNED (2011): *Atlas de las migraciones*. Le Monde Diplomatic eta UNED. Madril.
- Nazio Batuak (2023): Biztanleriaren Banaketaren estatistika-informazioaren ataria. Nazio Batuak.
- OXFAM (2017): *Desarraigados por el Cambio Climático. La necesidad de responder al aumento del riesgo de desplazamientos*. Oxford OXFAM.Oxford.
- PAJARES, Miguel (2020): *Refugiados climáticos*. Rayo Verde. Bartzelona.
- SÁNCHEZ, Angeles (2021): «Las transformaciones demográficas mundiales» in SÁNCHEZ, Ángeles (koord.): *Las transformaciones de la economía mundial*. GETEM-UAM. Madril.
- URDAL, Hendrik (2006): «A crash of generation? Youth bulges and political violence». *International Studies Quarterly* 50(3): 607.–629. or.
- VAN DEN BERG, Hendrik, eta BODVARSSON, Örn. B. (2009): *The Economics of Immigration: Theory and Policy*. Springer-Verlag Berlin Heidelberg.
- World Economic Forum (2023): *The Global Risks Report 2023*. 18th edition. World Economic Forum.



1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegia so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martínez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOAEHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Sails. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa<sup>1</sup>, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Sails, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak. M<sup>a</sup> Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOAE Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeo erronka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea.
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.
30. Munduko ekonomiarenerronka demografikoak. Ángeles Sánchez Díez. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

